

b) Bigarren istilu bat H-rena izan zen. Aritz/Haritz, Harkaitz/Arkaitz. Aurrekoaren arrazoin bera zuen alde batetik, hizki hori ontzat ematen ez dutenena, beste alde. Arazo txarra izango zen talde bat Izendegiaren aurka agertzea.

d) Hirugarren puntu bat *j* hizkiarena. Hemen ez da idazkera kontua bakarrik; esaera ere bai. Jon/Ion, Jurgi/Iurgi, Jasone/Iasone, eta beste zenbait.

Orain da zer komeni den erabakitzeko garaia.

Garrantzi gutxiago izanagatik, Codes/Kodes, Coro/Koru ala Koro, eta halakoren bat edo beste ere badugu; bainan, beste aldera. K-rekin idatzi genituen eta erantzunak aurka agertu dira.

Azkenekotz, Mari, Pedro, Juan, eta beste halakoren baten oztopoa ugaritasuna da. Hogeia, eta gehiago aldaketa duen ize-narekin zer egin! Zein aukeratu? Peru, Peyo, Piarre, Beti, Betiri...

Egungo gure erabakia izango da:

- 1) Bigarren argitalpenari baimena ematea.
- 2) "Vasconia" diruetxeari eskaintzea.

EUSKAL IZENDEGIAREN AZKEN ORRAZTAPENAK

Donostian, 1977-II-24

J. M. Satrustegi

Igazko apirilaren 30eko Batzarrean Euskaltzaindiak erabakitako neurrian "Euskal Izendegiaren" bigarren argitalpena prestatzen ahalegindu naiz. Denon gogoia da apain eta txukun ateratzea eta, hortarako, urriaren 29an bildu zen "Euskal Izenen" batzordea, aurrez zabalduko orriei emandako erantzunak aztertzeko. Ortografia eta idazkera kontua zen gehien bat gure arazoa. Bikotasun eta ezbeharrak zuzentzen joatea, batez ere.

Geroztik, aurtengo urtarrilaren 4an onartua izan da Korreetan herrialdeetako izenei buruzko erabakia. Hori delata, gure lana lenbait lehen argitaratzeko garaia oraintxe dela uste dugu. Hitzurre bat egin diot, eta hau da:

“Errejistroko araudiaren 54gn atala aldatzen aurtengo urtarrilaren 4an Korteek onartua duten Legeak, aurreko lege-gintzan baztertuak ziren herrialdeetako izenak erabiltzeko eskubidea ematen du.

Erabaki hau agintariak Erregeakin lehenago Barzelonan bildurik, 1976ko otsailaren 20an ontzat emandakoaren ondorena da.

1977ko urtarrilaren 8an B.O.-ak dakarrena, hau da:

“Errejistro Zibileko araudiak, 54 gn atalean, espainiarren jende izenak gazteleraz ezarri beharra finkatu zuen. Alderdi ezberdinetako herrialdeek heurrekin darabaten sentipen herrikoi sakonaren aurka dago erabaki hau, bakoitzaren adierazgarri diren jatorrizko izenak, etxean eta kanpoan, ezaugarri ofizial bezala jaiot hizkuntzan erabiltzea eragozten bait die.

Oraiko Lege honek egoera hori zuzendu nahi luke, norberaren duintasunak eskatzen duen neurrian, beste mugarik gabe izena aukeratzeko eskubidea aitortuz, alde batetik; eta Espainia guzian mintzatzen diren hizkuntzak zaindu eta bultzatzen ahaleginduz, beste alde, denak bait ditugu geure jatorrizko ondasun herrikoien atalak.

Horrexegatik, eta Espainiako Korteek ontzat emana duten legearen arabera, legeztatzen dut:

1 art. Mila bederatzi ehun eta berrogeita hamazazpiko ekainaren zortzian egindako araudiak, 54gn atalean, lehenbiziko zatian dakarrena, beste era hontara idatzita geldituko da:

Jaiotz-agirian sortu berriaren izena ezarriko da. Espainiar direlarik, Espainiako hizkuntzaritako batean ipini beharko dira izenak.

2 art. Norberaren ala legezko ordezkari baten eskabidez, Errejistroko arduradunak erabaki honen aurretik ezarritako pertsona izena Espainiako beste edozein hizkuntzetan duen antzekora aldatuko du. Aldaketa kitorik egingo zaio.

3 art. Lege hau B.O.-ean argitaratzen den biharamu-netik hasiko da bere eginkizuna betetzen.

Madriden mila bederatzi ehun eta hirurogei ta hamazazpi-ko urtarrilaren lauan emana.

Arau berri hauek atal bi dituzte orai berriztatzen dugun "Euskal Izendegia" era ezberdinean ukitzen dutenak. Herriak ahoan ibiliarren, lehen Errejistro Zibileko liburuetan sartzerik ez zuten izenak erabiltzeko bidea ematen du, alde batetik. Jaio berriaren lehenbiziko izendapenari dagokio neurri hau eta herri izenak aukeratzeko eskubide osoa ematen du. Hori delata, lehenbiziko argitalpenean sartzerik izan ez zuten bostehun izenekin ugaritu dugu honako hau.

Legearren bigarren atalak ematen duen eskubidez, beste alde, aurrez ezarritako izenen aldaketa, edozein jatorrizko izenei buruz emana da, eta euskal izen jatorrekin edo ohituraz euskalduntzat hartuak direnekin zer ikusi haundirik ez du, eta euskaratu beharraren arazoa sortzen du askotan. Errejistro Zibileko arduradunei neurri batean lana arindu nahiean, herriak gehienik ibili ohi dituen izen batzuen gaztelarazko ordaina —ez noski itzulpena— ezarri dugu "Euskal Izendegiaren" bigarren argitalpen hontan.

Gure Izendegia, hala ere, ez da berez egutegi orokorraren itzulpena edo euskaratze bat izan behar, ezaugarri berezizat euskaldunon asmabide zorrotza adierazteko bitxikerien bilduma balitz bezala. Ez da, beste alde, antxiñako zaharkeria eta aldaketa guzti guztien zerrenda egosgaitza, antigualeko tresna baten antzera ere. Geroari begiratzuz Euskaltzaindiak bere gain hartu duen eginkizuna, izen gaurkotuekin pertsona izendegi euskalduna egiten joatea da; herri joera jatorrei beti irekia, hala nola gure arbasoen kultur emaitza den kondaira, literatur, mitologia eta herri ohiturei. Gero ere egiten joango den liburu irekia izango da, beraz".

Lehenbiziko argitalpena egin zenetik, bost urtez alegia, bost mila fitxatik gora jaso dugu, eta bostehun izenekin ugaritu dugu zerrenda. Oraikoan badira mila eta berrehun pertsona izen liburuska honetan.

Behar beharrezkoa deritzaigu izen bakoitzarentzat agiriak egiten ibili gabe, Errejistrotako arduradunei idazkien bat bialtzea, zerrenda ofizialeko izen guziak ontzat hartu ditzaten eskatzen. Ez dela zerrenda itxia ere esan beharko zaie. Hemen ez direnen agiria egin lezake Euskaltzaindiak, agertzen doaren guzien bilduma egiten duen bitartean.